



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**


hitza



**Asteartea
2010-07-06**

VIII. URTEA 2.044. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



A. BELAUNZARAN

MARIA RACHID MUSULMANA

«Batzuk beraien erlijioa libreaki praktikatzen dute eta guk zergatik ez?»

ALEGIA Duela lau urte iritsi zen familia guztiarekin gurera; 12 urte zituenetik eramaten du zapia eta berarentzat «ohore bat» dela dio »



Sherman Robertson izan da jaialdiko «izarra». HITZA

Tolosand blues jaialdia «primerakoa»

TOLOSA Eguraldiak gehiegi lagundu ez badu ere «espero bezala» joan da blues jaialdia »

Euskal Jaia ospatuko dute Santiago egunean

VILLABONA 17:00etan hasiko da jaiak eta ekitaldi guztiak Errebote plazan egingo dituzte »

NAZIOA GARA

autodeterminazioa
autodeterminazioa
autodeterminazioa

DONOSTIA
MANIFESTAZIO NAZIONALA
17.00etan Errebote plaza

UZTAILAK 10

autodeterminazioa

Tolosandblues «ikusgarria»

Kultura » Antolatzaileek balantze baikorra egin dute aurtengo jaialdiaren inguruan; «kalitate handiko kontzertuak izan dira».

INIGO TERRADILLOS

Egonkorturiko ekimena dagurean Tolosandblues, eta «urtetik urtera sona eta ospe handiagoa hartzen ari dena». Argi geratu da hori igaro berri den asteburuan, ostiraleko eta larunbateko kontzertuak kalitate «handikoak» izan baitziren, eta horregatik eta izan duen harrearengatik «oso gustura» geratu dira antolatzaileak.

Iñigo Martin ekimeneko antolatzailer taldeko kideak azaldu bezala, «espero bezala joan dela edo aurrerikuspak gainditu dituela ere esan daiteke aurtengo jaialdiaz». Eguraldia izan zen kexatzeko puntua bakarra bere esanetan, izan ere, «euria egingo ez balu jende askoz gehiago bilduko zen, ziur».

«Maila izugarria»

Read House eta Lou Mariniren kontzertuekin hasi zen blues musikaren festa. «Maila handiko musikariak zirela bagenekien, eta kontzertua ere horrelakoa izan zen». Sorpresa ondoren etorri zen, The Romanticos taldeak Frontonen emandako emanaldiarekin. «Ustekabe ederra izan zen, esportakoa erruz gainditu baitzuen Iker Piris tolosarrak eta taldeko



Sherman Robertson ikusleengana hurbildu zen larunbateko kontzertuan. ANIEL ALONSO

beste bi kideek eskainitako zuzenekoak».

Larunbatean jaialdiko izarraren txanda izan zen, Sherman Robertsonena, hain zuzen. «Ikusgarria izan zen bere kontzertua, ikusleen artera ere jaitsiz, eta laukoteak ederki egin zuen bat. Bikaina izan zen», azaltzen du Martinek.

Emanaldi horren aurretik Amarratz auzoko jaien barruan McJearras Band euskal taldeak eskaini zuen kontzertu didaktikoa, eta To-

losandblues ekimeneko azken zuzenekoak Barcelona Blues Connection-en eskutik iritsi zen, Karlos Aranzegi bateria-jotzaile tolosarraren parte-hartzea azpimarratu behar delarik. «Erabateko primizia izan zen, bosteko bezala apenas elkartzeko baitira, kide bakoitzak bere taldea duelako, beraz, Tolosako bakarretakoa izango da. Europako armonika jole onenetarikoak biltzen dira, beraz, kontzertua oso maila onekoa izan zen».

Hurrengo urtekoa buruan

Eguraldiarena kenduta, beraz, «primerakoa» izan da antolatzailearen arabera aurtengo Tolosandblues. «Jendeak kontzertuez gozatu du, eta baita musikariek ere; gainera, Tolosara gustura etortzen direla esaten digute, eta hori pozgarria da guretzat». Datorren urtekoari begira izen ugari dituzte buruan: «egutegia edota aurrekontuak bezalakoak landu behar dira, eta horretan hasiko gara orain».

Txotxongiloak eta antzerkia bihar eta etzi

Kultura » Kafe antzerkia izango da Mariano Martinezen eskutik, eta txotxongilo ikuskizuna Kixka taldearekin.

ERREDAKZIOA

Aurtengo uda kultur ekitaldiz bete datorrigu. Batetik, igaro berri den Tolosandblues, eta bestetik Zikloia eta Gau Giro ekimenetako egitaraua osatuko duten antzerkiak, kontzertuak edota filmak.

Bada, Ezpeleta tabernariaren elkarteak eta Intojai antzerki konpainiak antolatuta, pasa den larunbatean hasi zen Gau Giro ekimenaren osagarri izan nahi duen



Kixka antzerki taldekoen txotxongilo emanaldia etzi izango da. HITZA

» EGITARAUA

Uztailak 7, asteazkena

■ **22:30.** Mariano Martinezen eskutik, kafe antzerkia, Orbela tabernan.

Uztailak 8, osteguna

■ **19:00.** Kixka taldearen txotxongilo emanaldia, Plaza Berrian.

■ **22:30.** Mariano Martinezekin, kafe antzerkia, Solana 4 tabernan.

Zikloia. Malabareen ikuskizuna eta kale zirkoa izan zen ikusgai herriko txoko desberdinetan.

Aste honetan izango du jarraipena ekimenak. Batetik, Mariano Martinez kontalariaren kafe antzerkiak gozatzeko aukera izango da bihar eta etzi gauean, Orbela eta Solana 4 tabernetan.

Bestetik, eta bereziki gaztetxoek zuzendua, Kixka taldearen txotxongilo ikuskizuna izango da Plaza Berrian. Eibarko taldearen helburua txotxongilo giroa haurren gure hurbiltzea da, eurek ere emanaldietan parte hartuz.

Kolore txuri-gorriak nagusituko dira bihar Alde Zaharrean

Aisia » Urtero bezala, San Fermin Eguna izaki, festa giroa izango da goiz nahiz arratsalde, Plaza Berrian.

ERREDAKZIOA

Azken urteetan egin duten bezala, San Fermin egunez festa giroa izango dugu Tolosako Alde Zaharrean, bertako bizilagunek prestatuturiko ekitaldiei esker. Hala, 12:00etan txupinazioa botatuko dute bihar Plaza Berrian, eta ondoren buruhandiak irtingo dira. San Fermin eguna izaki, ezin hutsik egin zezentxoek, eta horien txanda gero izango da. Jarraian txokolatea eskainiko dute eta eta *Pobre de mi* abestuko dute.

Arratsaldean, pailazoak

Arratsaldean, jai giroak jarraitzeko, K2, Ikatza, Eguzki eta Iratxo tabernekin antolatuta, Poxpolo eta konpainiaren emanaldia izango da, 19:00etan hasita.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arrotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



Hamaiketako egiteko parada Trianguloan

IBARRA Langostino Moto Kultur elkarteak atzo eman zioten amaiera aurtengo festari. 170 motorzalek hartu zuten parte jaialdian, iaz baino gutxiagok. Horren arrazoitzat, eguraldia, eta Mirandán beste bilkura bat izatea aipatu zituzten antolatzaileek. Atzo goizean jaiki, gosaldia eta motor gainera igo ziren, inguruetatik bira bat emateko. Nafarroa aldera joan ziren, Leitza, Lekunberri, Uitz eta Betelu zeharkatuz. 11:30 inguruan berriz, Trianguloa plazan egin zuten geldialdia, hamaiketako egiteko. Honen ondotik, berriro motortorra igo, eta Ibarrara itzuli ziren, han bazkaria egiteko. Antolatzaileak gustura geratu dira asteburuak emandakoarekin. **HITZA**



Trianguloa plazan inpernu bat irudikatu zuten larunbat goizean, Tolosako Gazte Asanbladako kideek. **HITZA**

«Gaztetxerik gabe herria inpernu bilakatu da»

Tolosa » Gazte asanbladakoek Inpernu gaztetxearen itxiera salatzeke, protesta ekitaldia burutu dute Trianguloan.

ERREDAKZIOA

«Trianguloa plaza inpernu bilakatu zen larunbatean», izan ere Inpernu gazte asanbladako kideek protesta ekitaldi bat egin zuten larunbat goizean, Tolosako erdigunean. Honekin, alde batetik, Jokin Bildarratz alkatearen jarrera salatu nahi izan zuten. Gazteen esanetan, «bera baita Inpernu gaztetxea ixtearen erantzule nagusia». Jabearekin hitz egin izana eta Ertzaizaintza bertara bidaltzea leporatzen

diote. Honez gain, «Sanjoanetan Inpernuren aldeko manifestazioa egiteko oztopoak jarri izana eta eraikina erortzeaz dagoela adieraztea» ere gaitzetsi zuten. Bide batez, okupazioan parte hartu zuten asanbladako zazpi kideri deklarazioa hartu izana ere, kritikatu zuten.

Gaztetxerik ez baldin badute ere, lanean jarraitzen dute Inpernu gazte asanbladakoek, eta argi utzi nahi izan dute, ekimen honekin, «eraso guztien gaitetik, inpernuk bizirik jarraitzen duela eta jarritako oztopoak ez direla nahikoa beraiek gelditzeko». Bestalde, betan, «bera baita Inpernu gaztetxea ixtearen erantzule nagusia». Jabearekin hitz egin izana eta Ertzaizaintza bertara bidaltzea leporatzen

dela» deritzote gazte asanbladakoek, eta honek herriko gazteak elkarrengandik urrundu egin dituela, hartu-emanak asko murriztuz.

Honenbestez, gazte asanbladakoek Tolosan gaztetxe baten beharra aldarrikatzen dute. Honek ahalbidetuko luke eta, gustu guztientzako aukera bat osatzea; gazteak elkartu eta elkarbanatzeko gune bat izatea; eztabaida gune aske bat osatzea; udal txak kontrolatu gabeko batzar bidezko gazteguneko autogestionatu bat eratzea; herriko herriarentzako gune bat izatea, herriari zerbait eskaintzeko; bakoitzak bere gaitasunak besteekin erakusteko aukera ematea; edonorentzako gune ireki bat edukitzea eta gazteen beharrak asetzeara.

Frontenis txapelketan izena emateko aukera

Albiztur » Jai batzordeak estreinakoz antolatu du ekimena; herritar guztiei luzatzen diete bertan parte hartzeko deia.

ERREDAKZIOA

Amaitzear da Albizturko Lehen Frontenis txapelketan izena emateko epea. Aurten, jai batzordekoek estreinakoz, norgehiagoka hau antolatzea erabaki du. Parte hartu nahi dutenek, herriko tabernetan egin dezakete, hilak 8 bitartean.

Txapelketan banakana nahiz binakako jokatu ahal izango da. Alde batetik, neskak ariko dira, eta bestetik mutiak. Beraz lau multzo egongo dira. Banakako neskena eta mutilena alde batetik, eta binakako neskena eta mutilena, bestetik.

Jai batzordekoen helburua ahalik eta jende gehienak parte hartzea da, txapelketa herrikoia bul-tzatzea ere. Hori dela eta, adinean ere ez dute mugarik jarri. Banaka parte hartu nahi dutenek, 10 euro ordaindu beharko dituzte izen-

ematea eta bikoteek berriz, 15. Izen-ematea amaitu ostean, egutegia finkatuko dute antolatzaileek. Hala, jakitera eman dutenez, partidak uztailean eta abuztuan, asteburuetan izango dira. Ostiral iluntzeetan batzuk eta larunbat arratsaldeetan besteak. Finalak, herriko jaien bezperetan jokatuko dira, hau da abuztuaren erdi aldean.

Partidak eta egutegia moldagarria izango da, beti ere, bi bikoteak ados jartzen badira, eta epaile ere bai.

Sariei dagokionean, finalista guztiek abuztuaren 13an ospatuko den Zikiro Afarirako txartelak jasoko dituzte. Irabazleentzat berriz, txapelak izango dira eta Txerriazale Elkarteak eskainitako produktuekin osatutako saskia.

Antolatzaileek jendea animatzeko honela diote, «herritar gehienek dute erraketa bat etxean, eta gazte nahiz heldu askok dute frontenisean jokatzeko ohitura. Hori dela eta, ongi pasatzeko eta bide batez, kirol pixka bat egiteko proposamena» egiten dute.

Euskal Herriko Plazan egiten dituzten produktuak, eskalerraindik ere ez dira onak. Euskal Herriko Plazan egiten dituzten produktuak, eskalerraindik ere ez dira onak. Euskal Herriko Plazan egiten dituzten produktuak, eskalerraindik ere ez dira onak.

37,44€
Prof. 2000L
Pasta Lina kamariak, salazuri puntak, lodak 228 ml-ko 12 pako

50,09€
Prof. 2000L
Ostingotz kamariak, pilatxo pipi erak 228 ml-ko 12 pako

Beste produktuak eskaintzen dituzte gurekin Euskal Herriko Plazan.

www.euskalherriko-plaza.com

Amaitu dira Amarotzeko eta Asteasuko jaiak

Jaiak» Uztaileko lehen astearekin batera, herenegun amaitu ziren eskualdeko Asteasu eta Amarotzeko festak.

OIHANA IGUARAN

Asteburu honetan eskualdean festa giroan murgildu nahi zuenak bi aukera besterik ez zituen izan, Asteasura joan edo Amarotzeko jaientara gerturatu. Bietan, hala ere, herenegun amaitu zituzten jai egunak, asteburu hau jairik gabe utziaz.

Asteasuko sanpedroak

Asteasun San Pedro jaiak ekainaren 28an hasi ziren, igande honetan amaituz. 6 eguneko egitarau zabalak bete dute festek, eta azken egunerako ere ez zuten gutxiago utzi. Hasteko, esku pilota eskolako txapelketako finalak jokatu ziren goizean, kadete zein jubilenenak.

Jarraian, sagardo dastatzea egin zen plazan, sardina eta txorixoekin lagundurik. Arratsaldean berri, herri kirolei heldu zitzaizkien txanda, eta herritarrek osatutako bi talde lehiatu ziren bertan, herriko giroa eta saltsa piztuz. Amaitzeko, Laket taldearekin luzatu zen festa, arratsaldean hasi bazen ere, gaur ean berri aritu zelako erromerian.

Amarotzeko «aldaketa txikiak» arrakastatsu

Amarotzen ere jaiak amaitu zituzten herenegun. Azken urteetan apustu berria egin dute auzoan, hau da, «batez ere, auzotarrei zuzendutako» jaiak egitea eta ekitaldiak, batez ere, egunean zehar antolatzea. Eta lortu dutela esan digute: «jendeak eguna oso ondo bete dugula esan digu. Auzokideak kontenturik daude festek emandakoarekin. Gauetan jende gutxi ibili da, baina ez dugu ezer berezirik

egiten, taldeak ere aspaldi kendu genituen», argitu dute antolatzaileek. Ildo honetatik bi izan dira aurtengo aldaketak: Antzerki Astearen hainbat emanaldi jaien egitarauen barruan sartu dituztela eta Tolosand blues jaialdiko emanaldi bat ere Amarotzen izan zela. «Oso gustura geratu gara. Jende ugari etorri da bi emanaldi hauetara. Igandean jende asko izan zen antzezanetan, baita kanpoko ere, eta musika entzuten ere oso gustura egon ginen», azaldu dute.

Arrakasta gehien izan duten deialdiak, dena den, mahaiaren bueltakoak izan dira. «Bazkari eta aforietan bizilagun asko elkartu gara. Igandeko bazkarian, esate baterako, 150 bat lagun bildu ginen, normalean jada auzoan bizi ez direnak gerturatu ziren otorduetara», esan dute.

Herenegungo erromerian ere jende asko bildu zen. San Blas ermitatik jaitsi ziren auzoko dantzariak kalejiran eta plazara iristerakoan, dantza ikuskizuna eskaini zuten. Eguneko ekitaldi nagusia izan zen hauxe, baina honetaz gain, txapelketa ugari ere izan zituzten. Bazkariaren ondotik antzerkia izan zen protagonista, eta urteroko aurrekuaren ondotik, sardina erreak janaz eta sagardoa dastatzen bukatu zuten eguna.

Larraitzeko San Pedro eguna

Nahiz herriko jaiak ez izan, Larraitzen ere hartu zuten San Pedro eguna ospatzeko tarterik. Herenegun egin zuten, lehenik eta behin meza nagusia izan zuten, eta hamaiketakoaren ostean trikitilariak aritu ziren iluntzera arte.



Goian, Amarotzeko Dantza Taldea eta Dantzari Txikien taldea. Behean, arratsaldean egin zen antzerkia. s.g.



Goian, Asteasuko pilota txapelketako jubilenen partida. Behean, partiden ostean plazan egin zen sagardo dastatzea. s.g.



Santiago egunez Euskal Jaia 2010 ospatuko dute

Villabona » 17:00etatik aurrera hasiko da festa, goizeko ordu txikiak arte. Afarirako txartelak salgai ostiralean jarriko dituzte.

ENERITZ MAIZ

Euskal Jaia 2010 prestatu dute, hilaren 25a iganderako. Arratsaldeko 17:00etan hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte izango da festa. Guztia, Villabonako Errebote plazan izango da.

Santiago egunerako, egitarau oparoa prestatu du Oinkari dantza taldeak. Euskal Jai honetan, herriko dantzariak gain, Donostiako Alde zaharreko joaldunek, Izer eta Alabierrek, Isk&bila txarangak, Kupela taldeak... parte hartuko dute. Guztia ordea, ez da musika eta dantza izango. Sagardo eta pintxo dastaketa eta afaria ere izango dira. Afaltzeko, bildotsa burrunztian erreta prestatuko dute. Afaltzeko txartelak erosi beharko dira.

Ostiraletik aurrera txartelak salgai jarriko dituzte Villabonako hamalau tokitan: Larrea, Ogi goxo, Labezain eta Kixubi okindegiatan, Amasa kafetegian, Garmendia harategian eta Itzalpe, Arnasa, Hiru Aldeta, Sheperds, Iturri goxo, Erreka, Iratzar eta Obaba tabernetan.

Txartel bakoitza 25 euro ordaindu beharko da. Eta erosteko azken eguna, hilak 23, ostirala izango dela adierazi dute antolatzaileek.

» EUSKAL JAIA 2010, VILLABONA

■ **Noiz.** Uztailak 25, igandea.

■ **Non.** Errebote plazan.

■ **Ordua.** 17:00etan emango zaio hasiera euskal jaiari.

Egitaraua

■ **17:00.** Donostiako Alde Zaharreko Joaldunak ibiliko dira herrian zehar.

■ **17:30.** Soka dantza Erreboteko plazan, Oinkari dantza taldearen eskutik.

Izena emateko aukera zabalik
 Bestetik, 2010-2011 ikasturterako izen-ematea jada zabalik du Oinkari dantza taldeak. Datorren ikasturterako ikastaroak, Jesusen Bihotza Ikastolako ganbaran burutuko dira eta ordutegiak aurrerago zehaztuko dituzte. Hiru urtetik gorako haurrei zuzendua dago. Izen-ematea burutzeko bi bide daude: telefonoz, 660 13 93 80 zenbakira deituz edota harremanak@oinkari.net helbidera idatziz.

■ **18:00.** Sagardo eta pintxo dastaketa.

■ **18:30.** Erromeria, Izer eta Alabierrek.

■ **21:00.** Afaria: Bildotsa burrunztian.

■ **23:00.** Afaria alaitzeko "Isk&bila" txaranga.

■ **00:00.** Korrontzi + Oinkariren emanaldia.

■ **01:30.** Erromeria, Kupela taldearenik.



Korrontzi + Oinkari emanaldiaren uneetako bat da hau. Villabonako festetan ikusi ahal izango da berriz. HITZA

UEU eta EHU-ko ikastaroetako diru laguntzak eskatzeko aukera

Irura » Euskarazko ikastaroetan izena eman duten herritarrek eska dezakete. Egonaldi gasturik ez da onartzen.

karazko ikastaroetan izena eman duten herritarrek eska dezakete. Eta ikastaroa hasi aurretik, edo hasi ondorengo hamabost egunetan egin beharko da.

Aurkeztu beharreko dokumentuak

Eskabide-orrria eta aitortza-agiria behar bezala beteta aurkeztu beharko dira. Orrria, udaletxean bertan edota www.irura.net web orrian lortu daiteke.

Nortasun agiriaren fotokopia, banketxe edo aurrezki kutxak si-

natutako agiria, kontu korrontearen titularrak eskatzailea dela egiaztatuz, banketxeak emandako agiria, gastuaren diru-sarrera egin dela egiaztatzen duena.

Era berean, behin ikastaroa amaitzean aurkeztu beharko da dagokion unibertsitateak emandako ziurtagiria.

Euskaraz egiten diren ikastaroetako matrikulak ordaintzen lagunduko dute eta egonaldi gasturik ez dute lagunduko. Informazio gehiago nahi duenak, udaletxean jaso ahal izango du.



Presoen eskubideen alde, futboleant

ANOETA » Azpeitiako Lagun Onak futbol taldeak antolatutik, Euskal Presoen eskubideen aldeko futbito txapelketa ospatu zen pasa den larunbatean. Bertan, ehun lagun baino gehiagok parte hartu zuten, eta horien artean ziren anoetarrek. Egun guztian irau zuen txapelketak. «Gaixo dauden presoen kaleratzea, biziarteko zigorrarekin amaitzea eta presoen Euskal Herriratzea» aldarrikatu zituzten bertan. HITZA



Ozako bailaran ateratako argazkia da hau. HITZA

Igandean Oza-Gabarditora, Aizkardi Mendi Elkartekoekin

Villabona » Izena osteguna baino lehen eman beharko da. 06:00etan abiatuko dira Olaederra kiroldegi aurretik.

gerturatuko dira. Behin gora igota, Secuseko aterpetetik behar jaitziko dira. Hortik, Gabarditorako aterpetxera joango dira eta jarrarian, Santa Ana (930m) zubira.

23 kilometro inguruko ibilbidea prestatu dute eta guztia zazpi orduren bueltan egingo dutela aurreikusit dute. Mendi irteera honetan apuntatu nahi duenak, 649 71 7182 telefono zenbakira deitu beharko du 20:00etatik 22:00etara. Edota, Aizkardi Mendi Elkartetik pasa beharko du. Izena emateko azken eguna, uztailaren 8a, osteguna izango da.

Igandean irteera, 06:00etan egingo dute eta Olaederra kiroldegiaren aurretik aterako dira.

EMAIZ

Aizkardi Mendi Elkarteko kideek, igandean, hilak 11, mendi irteera egingo dute Pirinioetara. Oraingotan, Oza-Gabardito aldeak ezagutzeko aukera izango dute.

Ozatik (1.140 metro) abiatuta, Atxer Gaztelura (2.390 metro) joango dira. Bertatik, Achar de Secus (2.240m) aldera joango dira eta jarrarian Peña Agüerrira (2.449 me-

itzulnet
 ITZULPEN ZERBITZUA

San Frantzisko 11, Tolosa
www.itzulnet.net

AZKARTASUNA ETA
 KALITATEA
 HIZKUNTZA KONBINAZIO
 UGARIA ETA
 PREZIO LEHIAKORRAK

BEHERAPENAK BOLLUMEN
 ETA MAIZTASUNARENGATIK

Lur gaineko txapelketan, 600 kilotan, Areso bigarren postuan jarri da

Sokaitira » Goiherri A talde irabazlearen aurkako bi tiraldiak oso gogorak izan ziren.

ERREDAKZIOA

Goiherri A taldeak bereganatu zituen 600 kiloko bigarren jardunaldiko zazpi puntuak, tiraldi guztiak irabazi ondoren. Amoroton, larunbatean, aresoarrek eman zuten ordea ezustekorik handiena, bigarren postua lortu baitzuten. Hori bai, Mutrikurekin berdinduta amaitu zuten. Hori nahikoa ez eta Goiherri A talde indartsuari hortzak erakutsi zizkion Aresok. Euren arteko bitiraldiak oso gogorak izan ziren eta txapelkunek izerdia pranko bota behar izan zuten. Lehen tiraldiak 8 minutu eta 24 segundo iraun zuten eta bigarrenak 04:35". Hirugarren eta azken jardunaldia hilaren 10ean jokatu da Erandion, 17:30ean.

» EMAITZAK

SOKAITIRA

LUR GAINEKO SOKAITIRA TXAPELKETA, 600 KILOTON

AZKEN JARDUNALDIA

1. Goiherri A (Erandio)	18 tanto
2. Mutriku	13 tanto
3. Areso	13 tanto
4. Gaztedi mistoa (Laukiz)	7 tanto
5. Goiherri B	5 tanto
6. Getxo	4 tanto
7. Gaztedi A	0 tanto

SAILKAPEN NAGUSIA

1. Goiherri A (Erandio)	14 puntu
2. Areso	10,5 puntu
3. Gaztedi mistoa	10 puntu
4. Mutriku	9,5 puntu
5. Goiherri B	6 puntu
6. Getxo	4 puntu
7. Gaztedi A	2 puntu

Finalak hilaren 10ean jokatuko dira

VII. HITZA Txapelketa »

Tolosako Beotibar pilotalekuan 6 mailatako finalak jokatuko dituzte 09:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

VII. Hitza Pilota Txapelketaren azken partidak larunbat honetan jokatuko dira Tolosako Beotibar pilotalekuan. Jaialdia 09:30ean hasiko da eta benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak eta nagusiak lehiatuko dira.

Eskualdeko ordezkaritza

Txapelketan Hego Euskal Herriko pilotari ugari hartu dute parte. Finaletara 24 iritsi dira eta hauetatik 10 Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak dira.



lazo finaletan jende ugari elkartu zen Tolosako Beotibar pilotalekuan. A. IMAZ

Benjaminetan Elizegi-Zabala alkizarrek jokatu dute; alebinetan Lezea-Karabal leitzarrek; infantiletan Larrea ikaztegiak eta Peña tolosarrak gorritz jokatu dute, aurrean Aburuza bide-

goiandarra edukiko dutelarik; kadeteetan Tolosa anoetarrak Iruretagoiena asteasuarraren aurka jokatu du eta nagusietan Senperena bidegoiandarra ariko da jaialdiko azken partidatan.

» FINALAK

VII. HITZA TXAPELKETA Uztailak 10, larunbata Beotibar (Tolosa), 09:30ean

BENJAMINAK

Elizegi-Zabala
Aizkorbe-Apezetxea

ALEBINAK

Salaberria-Zubizarreta
Lezea-Karabal

INFANTILAK

Larrea-Peña
Arteaga-Aburuza

KADETEAK

Agirre-Tolosa
Goikolea-Iruretagoiena

JUBENILAK

Santxo-Aretxabaleta
Juanenea-Aizpuru

NAGUSIAK

Senperena-Biain
Sukia-E. Galarraga

Errepidean nahiz pistan, domina ugari

Txirrindularitza »

Tolosako hiru txirrindulariren artean bederatzita domina lortu dituzte.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko txirrindulariek emaitza onak lortu dituzte Espainiako txapelketetan. Tolosa CFko txirrindularia den Ioana Eslavak adibidez, brontzezko domina lortu zuen 23 urte azpikoen karreraren errepidean.

Pistan ere bikain

Azken asteburuan Madrilen jokatu dira Espainiako pista txapelketak, junior mailan. Tolosako txirrindulariak Euskadiko selekzioarekin aritu dira eta domina ugari



Tolosako txirrindulariek domina ugari lortu dituzte Espainiako pistako txapelketetan. HITZA

ekarri dituzte etxera, batez ere Dorleta Eskamendik eta Irene Usabiagak. Lehenak, urrezko bat, zilarrezko bat eta hiru brontzezko

lortu zituen. Bigarrenak berriz, urrezko bat eta bi zilarrezko. Urte guztian zehar egindako lanaren emaitzak agerian geratu ziren Ma-

drilen. Dorleta Eskamendik gainera, Espainiako selekzioarekin errepidean Europako eta Munduko txapelketak jokatu ditu.

Tosalaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tosaldean@tosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

E Elkarrizketa

MARIA RACHID ▶ Musulmana



AGURTZANE BELAUNZARAN

«Beloja janztea nire identitatea mantentzea da»

Alegia ▶ Marokotik Euskal Herrira etorritako emakume honek, Islamak bere bizitzan duen garrantziaz hitz egin du.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Kultura eta erlijio ezberdineko herrialdea utzi eta duela lau urte hartu zuen familiarekin Euskal Herrirako bidea. Alegian bizi da Maria Rachid, musulmana eta emakumea bera. Zapia darama buruan, bere erlijioaren identitatearen zeinua. Hautsak harrotu ditu azken hilabeteetan emakumeek beloa janztearen kontu honek. Europako eta Estatuak hainbat tokitan neurriak hartzen hasiak dira: leku publikoetan beloa eta burka erabiltzea debekatuz. Ziurtasun kontuak eta emakumeen eskubideen alde omen. Erlijioek eta kulturek elkarrekin bizi behar duten garaian, hona eskualdean bizi den emakume musulmanaren iritzia.

Emakumea, musulmana eta zapia daramazur buruan...

12 urte nituenetik daramat zapia buruan eta niretzako ohore bat da. Mohamed profetan sinesten dut musulmana eta praktikantea naiz. Kartzela batean nagoela uste dute batzuk edota beloa buruan ematea tontakeria dela iruditzen zaie. Baina ez da horrela, oso garrantzitsua da emakumeontzako. Niretzat, zapia eramatea nire identitatea man-

tentzea da, nire erlijioarekin bat egitea.

Belgikan eta Frantzian burka eta zapiaren erabilpena debekatzeko hainbat neurri hartu dira. Orain Estatuan, Madrilgo, Leridako eta Andaluziako kasuak ditugu. Zer diozu horren inguruan?

Europar askatasunean bizi gara, errespetua zor diogu elkarri. Madrilen ikasleari eskolara joatea debekatu zion ikastetxeak buruan zapia eramateagatik. Debekatzeko ez da askatasunean bizitzea. Neska musulmana da eta bere gogoz janzten du zapia eta hori debekatzeko, erlijioa praktikatzeko ez uztea, arrazismo joera da. Batzuk beraiekin erlijioa libreki praktikatzeko dute eta guk zergatik ez?

Zergatik orduan hainbeste neurri zapiaren kontu honekin?

Islamari beldurra diotela sumatzen dut. Erlijio indartsua da, jende askok jarraitzen duena. Musulmanoi ez digute beldurrik, erlijioari baizik. Islamak ordea ez luke beldurra eman behar, gehiago ezagutzen duzun heinean, barne-bakea ematen baitu. Bizitza ikusteko modu bat eman dit niri. Ezjakintasunak askotan neurri okerrak har-

tzera eramaten gaitu. Erlijio ezberdinak ezagutu eta denon artean errespetatzea da kontua.

Zein da burka eta zapiaren arteko diferentzia?

Burka Afganistanen janzten dute, guztiz beltza da eta emakumea burutik hanketaraino estaltzen du. Begiak bakarrik ikusten zaizkiola-

«12 urte nituenetik daramat beloa. Oso garrantzitsua da niretzat, ohore bat»

«Burka eta beloa guztiz ezberdinak dira. Guk ilea bakarrik estaltzen dugu, burkak berriz burutik oinetaraino tapatzen du»

rik. Euskal Herrian bizi garen marrokoar emakumeek zapia janzten dugu. Ilea bakarrik tapatzen digu. Aurpegia, eskuak eta hankan ikusten zaizkigu. Burka eta zapia ez dira gauza bera.

Zer dio Coranak, emakumeak buruan zapia erabiltzeari buruz?

Coranak behartu egiten du emakumea zapia erabiltzera. Mohamed profetari Jaungoikoak esana da; emakumeek ilea eta oinak estali behar zituztela. Nire zapia oso modernoa da.

Alabak zapia ez duela erabili

nahi esan go balizu, zer egingo zenuke?

Berak eraman nahi ez badu ni ez naiz inor behartzeko. Etxean Corana irakurri eta jarraitzen dugu. Gure kulturaren semeak aitak erakutsikoari jarraitzen dio eta alabak amari, eta alabak niri zapiarekin ezagutu nau. Errespetuz bizitzen eta pertsona onak izaten erakutsi diegu Coranaren baloreekin. Nik bihotzez nahi nuke berak zapia erabiltzea, baina ez badu nahi ezin dut horretara behartu. Bere aukera da hori.

Emakume musulmanak europarrak bezala jantzi beharko liratekeela diote batzuk...

Europarrek galtzak janzten dituzte, nik ere bai. Beraiek bezala janzten gara; alkandorak, galtzak, gona

luzeak, baina buruan zapiarekin, txarra al da?

Zapia eramateagatik diskriminatua sentitu zara Tolosaldean?

Ez. Alegiara iritsi ginenean jendeak begiratu egiten zidan, mesfidantzaz edo. Hasieran normalean izaten da hori, lau urte pasa dira eta orain herritar bat gehiago naiz, baita nire familia ere. Lana aurkitzeko ere ez nuen arazorik izan. Musulmana izatea eta zapia eramatea errespetatu didate. Zaharren egoitzan egiten dut lan eta oso pozik nago aiton-amonekin eta beraiek ere nirekin gustura daude. Lanean, zapia kentzeko eskatuko balidake, ez nuke lana onartuko, nire identitatea kentzea izango bailitzateke. Zorionez ez da horrela izan eta oso gustura nago.

Ramadana ere laster duzue...

Abuztuaren 11n emango diogu hasiera Ramadani. Egunez baraualdia egingo dugu: janik, urik eta sexu erlaziorik gabe. Coranak azken batean, jateko eta edatekoa soberan dutenei, jateko gutxi edukitzea zer den erakutsi nahi die.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



21°
12°

GOIZA OSKARBI
ARRATS. EURIA
BEROENA 25°
HOTZENA 18°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Berastegi.** Salontzo jaiet hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute, (txekorria burduntzian). Txartelak salgai Zelai taberna, Dendaberri, Urepele biltokia eta Basurde elkartean 16 eurotan (12 urteko beharokoek 8 euro).

■ **Tolosa.** 2011ko Tolosa Egutegi-argazki lehiaketa erretratuie buruzkoa da. Oinarriak <http://tolosagasa.blogspot.com> helbidean ikus daitezke. Erakusketan jasotzen dituzten 40 argazkiri onenak bilduko dituzte eta ondoren, bisitariak argazkiri onena bozatzeko aukera izango dute.

■ **Tolosa.** Uztailaren 16tik 18ra Eriste (3.053 m) eta Posets (3.375 m) mendietara irteera antolatu du Oargik, Viados eta Angel Orus atarpetxeetan lo eginez. Informazioa: www.oargi.org.

■ **Villabona.** Uztailaren 11rako Oza-Castillo de Atxer (2.384 m)-Aguerri (2.449 m)-Gabardito (Huesca) mendi irteera antolatu du Aizkardik. Informazioa: www.aizkardi.com.

■ **Villabona.** Ahozkatasuna kulturen, eguneroko jardun berezitu eta haur munduan jardunaldiak burutuko dituzte uztailaren 22, 23 eta 24an Subijana Etxean. Izena emateko epea uztailaren 16ra luzatuko da 50 eurotan (EHBEko bazkideek eta ikasle eta langabeteek 35 euro) Mintzola Fundazioan (943 69 41 29 edo administracio@bertsozale.com).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Noranzko bakarra aurkitzen da zabalik

VILLABONA • Herria zeharkatzen duen N-1 errepide zaharrea atzo hasi zuten lanak. Honen ondorioz, alde batetik ezingo da bertan aparkatu eta bestetik, trafikorako noranzko bakarra utzi dute zabalik, hau da, Tolosa-rantz doana. Errepidearen konponketa lanak bi fasetan egingo dituzte.

Hasteko, elizatik gasolindegirako zatia konponduko dute eta ondoren Izkinako bidegurutzeraino iritsiko dira. Lehenik eta behin, asfalto zati bat kenduko dute eta ondoren berria bota. Jarraian, margotze lanak egingo dituzte. ESTI EZEZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>